

SANTO TOMAS AZOKA



José Arrue. Santo Tomasera bidenabar © Euskal Museoa Bilbao 81-4442



Plaza Zaharra © Revista Novedades. Biblioteca Municipal de San Sebastián

Abenduaren 21ean Santo Tomas azoka tradizionala egiten da Bilbon, urtero-urtero, hotz egin, euri egin, biak batera egin. Hala, alaitasunez eta zarataz borborka izango dira, aurten ere, zazpi kaleak eta inguruak, Bizkaiko landa-eremutik beren barazki, fruta, hegazti eta txerrikirik bikainenak saltzera etorritako nekazariz gainezka eta txistorra edo odolki taloa eta txakolin edo sagardo tragozka dastatzeko ohiko erritua betetzera eta, seguru asko, aurreikusitakoa baino gehixeago erostera etorritako hiritarrez gainezka. Bilbon Santo Tomas, Arrasaten Santamasak, Gasteizen Gabonetako Nekazaritza Feria, eta Donostia, Azpeitia, Hondarribia, Usurbil, Erreterria, Irun eta Lekeition Santo Tomasko Feria... ezin uka egun polita denik. Baina ezagutu ditzagun egunari berari dagozkion berezitasun eta bitxikeria batzuk.

Negua iritsi aurretik, hiru hitzordu saihestezin ditugu jaki biltegiak betetzeko eta azken produktu freskoak nahiz Gabonetako otorduak prestatzeko erabiliko ditugunak eskuratzeko azokei dagokienez: San Andreskoa (azaroak 30), Santa Luziakoa (abenduak 13) eta Santo Tomaskoa. **Santo Tomaskoa neguko solstizio inguruan egiten da, urteko egunik laburrenean, abenduaren 21 eta 23 artean, urtearen arabera.** Antzina, eguzkiaren indarberritzea eta urte berriaren etorrera ospatzen zen ziklo horretan, eta bere egin zuen Kristautasunak –Eguberri–, Kristoren Jaiotza ospatzeko, zeinak markatzen baitu Gabonen hasiera. Tradizioei begiratuta, atzean gelditu da udazkena –belar landareen, laboreen eta fruten uzta bilketa eta hornitzea amaituta; ardoa, txakolina eta sagardoa eginda; eta txerria hilda, zeinetatik atera baita nahikoa haragi, urdai eta hestebete–; eta hurbil da nekazaritzako urte berriaren hasiera, zeinetan nagusituko baitira ereintza eta ongarritze lanak udaberrira artean. Bitarte ezin aproposagoa da, beraz, uztaren soberakinak eta etxean egindako produktu preziatuenak saltzeko, zorrak eta zergak ordaintzeko diru apurtxo bat biltzeko, kontratuak sinatzeko eta hiribilduko dendetan lanabesez eta askotariko jakiez hornitzeko.

Santo Tomasko urteroko hitzorduak nabarmentasun handia hartu zuen Bilbon, Donostian eta Gasteizen, landa-eremuko baserritar askok baliatzen baitzuten egun hori beren baserri eta soroen administratzaile edo jabeen urteko errenta ordaintzeko. Izan ere, jabeak hirietan bizi ziren, eta azaoaren 11tik (San Martin eguna, nekazaritza urtearen amaiera) Gabonak arteko epea zeukaten finkatuta errentak kobratzeko. Errenta dirutan nahiz salgaitan (gari, arto, fruta, mahats eta abarren uztaren ehuneko bat) ordaintzen zen, edo bietara; eta, haren osagarri, urtean zehar nahitaezko opari batzuk egiteko betebeharra zuten mai-terrek: bina kapoi, Gabonetan; arkumea, Pazkoan; eta bi oilasko, San Joanetan edo herriko zaindariaren egunean. Betiere, ahaztu gabe jabegoa baldintza onetan mantentzeko, hobetzeko edo ekoizpena handitzeko konpromisoa ere bazutela. Mende erditik gora da errentak ordaintzeari utzi zitzaioela, baserriak mai-terrek erosiz edo desagertuz joan direlako; baina iraun egin du azokak, jaiegun bihurturik, erritu berriez jantzirik, hala nola, lagunekin elkartzeko txistorra edo/eta odolki taloa jatera, gure arbasoen garai bateko jantzi tradizionala janztea eta tokian tokiko ekoizpena sustatzea, xede horrekin antolatutako lehiaketa eta erakustaldietan parte hartuz.




Rotalde jauregian, Haraneko IV. Kondearen maizterrak. Bergara 1910 © Archivo Municipal de Bergara

SANTO TOMAS AZOKA, BILBON

Gutxienez XIX. mendeaz geroztik ospatzen da Santo Tomas Bilbon: garai hartan, Plaza Zaharreko azoka inguruan antolatzen zen, San Anton zubiaren alboan; eta 1915az geroztik, berriz, gaur egungo eremuan egin izan da, Plaza Barrian. **Félix Garci-Arcéluz hazi-saltzailea (Bilbo, 1869-1920)** izan zen aldaketa haren sustatzailea, **Klin-Klon** ipuin eta pasadizo kostunbristengatik ezaguna eta Bizkaiko Nekazaritza Azoken sustatzailea. Haren omenez, plaka-armarri bat ezarri zen, 1922an; Manuel Bastera eskultorearen obra da (gaur egun, galdua du jatorrizko polikromia), eta herritarren artean antolatutako diru-bilketa bati esker atera zen aurrera hura ezartzeko ekimena. Oroigarria Plaza Barriko sarreran dago, Ekaingo Haitzuloa kalearen aldean; eta, 2001az geroztik, Garci-Arcéluzi omenaldia egiten diote hantxe bertan Bilboko Konpartsek eta Txarriduna Txerriaren Akademiak, Santo Tomas aurreko igande goizean. Hain zuzen ere, lore eskaintza egiten da, eta Klin-Klon sarien urteroko edizioa (bi kategoriak osatutako sariketa da: prentsako argazkirik onena eta nekazaritza-abeltzaintza azoka tradizionaleko saltokirik onena).

1945az geroztik, Bizkaiko Aurrezki Kutxa, gaur egun Kutxabank, arduratu izan da azoka antolatzeaz, guk orain ezagutzen dugun moduan. Bitarte horretan, hainbat berrikuntza aipagarri izan ditu, nolanahi ere: erakustokia Areatzaraino zabaltzea, egurrezko saltokien ordez etxola aurrefabrikatuak jartzea, urteko ekoizpen onenen sariketa (barazkiak, frutak, landareak, sagardoa, txakolina, gazta, eztia, kontserbak, okintza, euskal pastela, esnekiak eta animalia biziak saritzen dira), eta bertako nekazaritza eta gastronomia ekoizpena sustatzearen eta biziberritzen alde lan egiten duten erakunde edo pertsonen omenaldia. Izan bedi Santo Tomas azokaren tradizio hau elkartzeko edo gure baserritar eta ekoizleen produktu bikainez gozatzeko aitzakia. ON EGIN!



Salmenta postua Santo Tomasen. Plaza Berria 1972 © Kutxabank



Salmenta postua Santo Tomasen. Plaza Berria 1971 © Kutxabank



Santo Tomas merkatua. Plaza Nueva 1977 © Kutxabank



Salmenta postua Santo Tomasen. Plaza Berria 2011 © EMB